

...eta

# KittO!

884 zkia.  
2014-III-28



## **Bizitza osoa** *mainer* **foballean** *castillo*



### KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

**G**

**A**

**30 urteko esperientziak**  
ematen duen  
**konfiantza**



[www.euki.com](http://www.euki.com)

Tel: 943 200 358



**herriarrek**  
martxan en marcha



**Gipuzkoa**  
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua



**PARTE HARTU**  
ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean  
Mugi/Lurraldebus txartela  
kargatzeko 20 euroko bonoak  
zotz egingo ditugu.

**Gipuzkoa**  
BERRIA

## GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: [www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)

**AURKEZPEN EKITALDIA**

**Apirilaren 1ean, 18.30etan, Portalean**



## ASTEAN ESANAK

"Txinara joenez gero, langileak edukiko dituzu, ez pertsonak. Gastu txikia egingo duzu, baina ez duzu ilusiorik edo gogorik lortuko langileengan. Ekonomia hobetzen ari dela diote batzuek, baina guk ez dugu horrelako ezer ikusten. Gure taldeak gora egin du bezeroei bisita gehiago egiten dizkiegulako"

(KOLDO SARATXAGA, NER GROUP TALDEA)

"Bilboko Guggenheimek indarkeria erabiltzen du bere inguruaren aurka: ez du inolako zerikusirik inguruan dituen eraikinekin eta beste zeozer izan nahi du. Ez dut esan nahi Gehry ez dela arkitekto ona eta museo eraikinek ezin dutela kontrastea egin. Baina eraikin guztiak ez dute zertan harritutektura izan"

(JUSSI TIINEN, ARGAZKILARIA)

"AEBetan *hispanoen paradoxa* dugu: heziketa maila txikiagoa dute, gutxiago irabazten, osasun aseguru edukitzeko aukera gutxiago eta, oro har, osasun adierazletan antzeko desabantailak. Hala ere, osasunaren ikuspegitik emaitza hobekak izaten dituzte: gehiago bizi dira eta heriotza tasa apalagoak dituzte. Eta umeen heriotz tasa zurieta baino txikiagoa da. Bestalde, haurren heriotzen alorrean, Kuba edo Costa Rica baino okerrago daude"

(LUISA N. BORRELL,  
NEW YORKEKO UNIBERTSITATEA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskerara

**KALAMATXINO.-** Esistitzen ez den animalia bat izendatzeko berba. "Batak erbikumiaren okelia zala onenatarikoa ta bestiak kalamatxinoarena (kalamatxino hau Trapu-trapuk asmatuko kontu bat besterik ez zan".

**KALDER.-** Zekena. "Kedarra be ez leuke emongo kalder horrek".

## eskutitzak

### MILA ESKER JASO DUGUN LAGUNTZAGATIK

Antolatzaileen izenean, **XXI. Azkoitia-Azpeitia** maratoni erdia posible egiten lagundu diguzuen guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu. 2014ko edizioa historiara pasatuko da; hizki haundiz esan dezakegu orain arteko lasterketa azkarrena izan dela eta emozioz betetakoa. Lan askoren ondoren, amesten genuen helburuetako bat egia bihurtu da.

Mila esker gure ondoan izan zareten erakunde, babesle, laguntzaile, elkarte, kirol entitate, atleta, komunikabide eta lagunoi. Hurrengo urterako maila oso goian jarri dugu, baina ahaleginduko gara gaintitzen, betiko apaltasunez eta lanean jarraituz.

**AZKOITIA-AZPEITIAREN ANTOLAKUNTZA**



Martxoko azken domekan (hau da, **hilaren 30ean**) udaberriko ordutegia sartuko da indarrean. Zapatutik domekarako goizaldeko 02.00ak ailegatzean, erloju guztiak ordubete aurreratu egin beharko ditugu, 03.00etaraino. Ofizialki **ORDUBETE GUTXIAGO** izango du asteburu honetako domekak. Horrela, agur esango diogu indarrean egon den neguko ordutegiari. Udako ordutegi berri horrek **urriaren 26ra arte** iraungo du; egun horretan neguko jarriko dute berri indarrean.



Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILERA:** ...eta kito! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

**Astekararen E-MAILak:** [erredakzioa@etakitto.com](mailto:erredakzioa@etakitto.com) / [komunikabideak@etakitto.com](mailto:komunikabideak@etakitto.com) /

[publizitatea@etakitto.com](mailto:publizitatea@etakitto.com) **Elkarteen E-MAILak:** [elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com) / [normalizazioa@etakitto.com](mailto:normalizazioa@etakitto.com)

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Levante U.D.

**BANAKETA-ARDUARDUNA:** Ainhua Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kito! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kito!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**EIBARKO  
UDALA**



**GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)**

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

## Autopistako segurtasuna hobetuko dabe

Udaberri honetan Bidegik autopistaren zati batzuetako bide-zorua konpontziaz gaiñ, Ubitxako eta Azittaingo biaduktuetako hesiak sendotzeko asmua azaldu eban astelehenian, Eneko Andueza batzarkide eta ziñegotzi sozialistak martxuaren 5ian ordu erdian lau istripu gertatu eta jarraixan eskatuta egindako agerrialdixan. Egun horretan zauri ariñak euki zittuen hainbat lagunek eta AP-8ko bidezubitik behera Ubitxara hainbat objektu erori ziran. Joseba Altu-

be Batzar Nagusixetako Bide Azpiegituretako zuzendarixak egun horretako istripuak auto batek galdutako gasoilari egotzi zetsazen.

Ubitxan gaur egunian dagan barandilla zaharkituta daguala onartu eban foru ardudunak eta, horrekin batera, ibilgailu ariñ eta astunen talak erraz eutsiko dittuan metalezko pretilla eraikitzeko asmua dakela aurreratu eban. Proiektua maiatzian aurkeztuko da eta pretilla geruago ipiñiko diran pantaila akustikuekin ba-



*Ubitxan eta Azittaiñen egingo dittue konponketok, zati horretan gertau diralako istripu gehixenak.*

teragarria izango da. Bestalde, Azittaingo biaduktuan bide-zorua barrirtuko da eta eustehormak jasoko dittue; horko proiektua apirillian onartuko

da, 460.000 euroko kostuarekin. Eibar ziharkatzian horrenbeste istripu izateko arrazoi nagusiñak larregizko abiaduria eta eguraldixa dirala diñue.



## Ikastolako ikasle ohien bazkarixa

Urte morduan alkartu barik egon eta gero, 1987xan 8. mailan Itzion ibillitako ikaslien talde bat bazkaltzeko alkartu zan aurreko zapatuan. Deialdixak arrakastia euki eban, gelako ixa lagun guztiak batu ziran-eta, 24 lagun guztira. Horrenbeste urtian alkar ikusi barik egon eta gero, euki eben zer kontau. Giro paregabian pasau eben eguna eta datorren urterako be egin dabe hitzordua.

## Kanposanturako sarbidiak hobetu dittue

Eibarko udal hillerrixa hobetzeko biharrin jardun dabe: alde batetik, arrapala dakan sarbide barrixa egin dabe J. A. Iturrioz kaletik kanposantura errezago sartu ahal izateko. Kanposantuaren goiko aldeko sarreran lehen eguazen eskillarak kendu eta aldapatxua ipiñitta, oiñezkuak sartzia eta urtetzia erraztiz ez eze, hilleta zerbitzuetako automobilleri be

## Untzagak Sabadell-Guipuzcoanorekin hitzarmena siñatu dau

Untzaga Guztion Etxea alkartiak hitzarmen komertziala siñatu dau Sabadell-Guipuzcoano bankuarekin. Untzagako jubilaue etxiak 1.400 bazkide baiño gehixago dakaz eta, siñatu barri daben hitzarmenari esker, bankuak eskintzen dittuan produktuak baldintza berezixetan eskurtzeko aukeria eukiko dabe. Hitzarmena Joaquin Aranbarri bankuaren Gipuzkoako ardudunak, Mikel Urkola Eibarko bulegoko zuzendarixak, Felix Elkoroiribe Untzagako jubilaue etxeke presidentiak eta Amor Garcia zentroko diruzaiñak siñatu dabe.



*Urkola, Garcia, Elkoroiribe eta Aranbarri ekitaldixan.*

mesede egingo detse; eta, bestetik, sarbide horren inguruko nitxo edo horma-hillobi modulu-tako bat barrizatzen hasi dira. Nitxo-modulu-eraberritzeko biharrerari esker, bestalde, horman eguazen kaltiak konpondu dittue. Konponketa-biharretan 28.000 euro gastau dittue.





## Hasi da Nagusixen Hamabostaldixa



Eguardixan Portalean ekin detse Nagusixen XXI. Hamabostaldixari eta gaur arratsaldian bertan 19.30xetan **inaugurauko dabe** Armerixa Eskolako Ikasle Ohien argazki erakusketia Untzagako jubilau etxian. Apirillaren 11ra arte egongo da ikusteko aukeria, astelehenetik barixakura 19.15etatik 21.15etara eta zapatu eta domeketan, barriz, 12.00xetatik 14.00xetara. Hortik hasitza datozen aste bixetan ixa egunero jarduera diferentietan parte hartzeko aukeria egongo da (ikusitza agendia 24. orrixan). Aurtengo barrittasunen artian, apirillaren 2rako antolatu daben bertso-afarixa dago. Untzagako jubilau etxian egingo dan afarixa 20.30xetan hasiko da eta Juan Mari Narbaiza eta German Meabe bertsolariak jardungo dabe, **Rafael Zubizarreta** gai-jartzailiak (**argazkixan**) esandakueri jarraituta. Antolatzailliak euskaltzale eta bertsozale guztiak afarira juatera animau nahi dittu, "*bakarrik 12 euro balixo dau eta giro edarra egongo da*". Baten bat animatzen bada, oindioke be izena emoteko aukeria daka (jubiletzietan).

## Muturreko kirol erakustaldixak

Aurreko asteburuan Xtremo Norte aldizkarixak antolatutako Ekitea jardunaldixetan ezohiko kirolak bertatik bertara ezagutzeko aukeria euki genduan, bestiak beste Errebalgo aparkalekuan egin zittuen erakustaldixeri esker: acroyoga, skate, slackline, enduro eta beste asko erakutsi zittuen eta, horrekin batera, Unibersidade Laboralian hitzaldi eta proiektziñuekin biribildu eben programia.



## autuan



### EUSKERA MINGEGIXA

Martxuaren 31tik apirillaren 30era bittartian egongo da Euskeriaren Transmisiñora Mingegixan izena emoteko aukeria. Egun osorako preziaua 25 eurokoa da (bazkarixa barne). Maiatzaren 6xan (martitzenian) goizez eta arratsaldez Portalean egingo dan mingegixan izena emoteko edo informaziñua eskatzeko 943200918 telefono zenbakira deittu edo normalizazioa@etakitto.com helbidera idatzi leike (Ainara Labado).



### ELIKAGAIXAK BEROTZIA

Datorren martitzenian Alvaro Campos Celador Eibarko Injenieritza Eskolako irakasliak hitzaldixa emongo dau ikastetxian, San Andres aretuan, 15.30xetan hasitza. "Transferencia de calor en alimentos" izenburuari jarraituta, sukaldatzeko orduan sua modu egokixan zelan erabilli azalduko dau.



## Pakita Barrenetxea Urkiola

II. urteurrena (2012-III-27)

ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN.

ZURE FAMILIA

asteko  
2.642  
datua

konsulta jaso zittuen iaz udaleko Konsumo Buleguan, 1.449 buleguan zuzenian, 869 telefonoz eta 324 internet bidez. Gaiñera, 213 erreklamaziñotan bitartekari-biharra egiñ eben.



## Basarritar jantzixen premiñan

Idaho-ko (AEB) Boiseko ikastoliak umiendako basarritar arropak eskatu dittu, Santa Ageda, danborrada, Olentzero eta beste jai batzuetan hango umiak jantzi ahal izateko. Han erosteko aukerarik ez dakenez hamengueri eskatzia pentsau dabe, ia bi eta bost urte bitarteko 30 bat umerendako arropia batzia lortzen daben. Boisekua Euskal Herriko mugetatik kanpora dagan ikastola bakarra da eta, hango andereño bat Abadiñokua danez, beran bittartez egin dabe eskaeria. Baten batek erabiltzen ez daben arropia emonda lagundu nahi badau, jantzixak Traña-Matienako Bagoaz Bidaia agentziara eruan biharko dittu (Ander Cimas da arduraduna).



## ...eta kitto!-k urteko batzarra egin dau

Aurreko eguenian egiñ eban ...eta kitto! Euskara Elkarteak urteko batzarra. Igone Lamarain, Koldo Mitxelena eta Maider Aranberri zuzendaritzakidiak 2013. urtiaren inguruko baloraziñua eginda ekin zetsen billeriari: diru-laguntzetan izandako jaitsiera nabarmenak eraginda (Eusko Jaurlaritzatik 18.000 euro gitxiago jaso zittuan alkartiak) urte gogorra izan dala azaldu eben, baiña, bestalde, publizidadiak harrrera ona euki dau eta herritarren babes haundixa somatu dala azpimarratu eben, "adibidez Gabonetako otarraren zozketarako txartelak saltzerako orduan". Horrekin batera, instituziñuekin hartuemon zuzena lortu da eta, gaiñera, iazko jaitsieria "larregizkua" izan dala onartu dau Jaurlaritzak. Urtian zihar landutako proiektu nagusixerri errepasua emon eta gero, diru kontuak bazkidiari presentatu eta 2014rako presupuestua onartu zan.

Horrekin batera, urte honetarako bazkidekuotak eta zuzendaritza barrixa onartu zittuen. Inguruko beste alkartien kuotak begiratu eta danden artian bajuenak ...eta kitto!-kuak dirala ikusitta, aurten kuotak KPI-aren baiño apur bat gai-



Zuzendaritza barrixan hiru aldaketa izango dira. SILBIA HERNANDEZ

ñetik biribiltzia erabagi eben bazkidiak: 16 urtetik beherakuak urtian 5 euro pagauko dittue; langabe, ikasle, jubilau eta etxeandak, 15 euro; eta bihargiñak, 45 euro.

Zuzendaritzarako aurkeztu zan proposamenari be baietza emon zetsen: Igone Lamarainek, Fermin Lazkanok eta Leire Narbaizak lagatzia erabagi dabela-eta, zuzendaritza holan osatuta geratu da: presidentia, Juan Barahona; presidente ordia, Moises Gonzalez; idazkarixa, Maider Aranberri; diruzaiña, Marisol Uriarte; eta bokalak Aitor Alberdi, Ainara Argoitia, Unai Campo, Julian Fernandez, Josu Mendikute, Koldo Mitxelena, Ekaitz Olaizola eta Ane Urkiola.



## Garraia hobetzeko billeria

Diputaziñuak garraio publikua hobetzeko asmuarekin herritarren iritzi eta ekarpenak jasotzeko prozesuari ekin zetsan iazko urrian eta oiñ, bigarren fasian, herririk herri billerak egitten dabiz, herritarrak egindako proposamenak ezagutzera emoteko. Eibarren datorren astian egingo da billeria, apirillaren 1ian (martitzenian) 18.30xetan, udaltxeko pleno aretuan. Gipuzkoako 56 herrixetan 3.000 lagun baiño gehixagok egindako ekarpenak jaso eta %75 onartu eta gero, idazke-

ta teknikua egin dabe eta oiñ autobus zerbitzu barrirako proposamena herritarreri aurkezten dabiz. Baten batek beste ekarpen edo proposamenik aurkeztu nahi badau, horretarako aukeria eukiko dau billeran bertan, etxietara banatutako esku-orrixak erabillitta (billera egunian udaletxian hórrek jasotzeko postontzixa ipiñiko dabe eta, bestela, Lurraldebuseko autobusetan entregau leikez) edo, bestela, interneten [www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net) webgunian sartuta.





*Bihar goizean, 11.00etan hasita, "Fibromialgia, minbizia eta osasuna" hitzaldia eskainiko du Coliseoan Gabriel Ruiz Garcia Palentziako sendagile, akupuntore, naturopata eta abokatu ospetsuak. Defibel elkarteak antolatu du ekitaldia eta sarrera libre da. Medikuek eta ikertzaile moduan, gure gaitzak geuk senda ditzakegula uste du, minbizia barne.*

**GABRIEL RUIZ (doktorea):**

## **"Bihotzak nahiago du arineketan egitea ibiltzea baino"**

**- Zein arlotik bideratzeko asmoa duzu zapatuan eskainiko duzun hitzaldia?**

Batez ere, azpimarratu nahiko nuke konfliktuak beharrezkoak direla, lokartuta ez geratzeko aktibatzaileak, eragileak. Gatazka horiek ondo konpontzen baditugu, irtenbide zuzena aurkituta, horrek indartu egingo gaitu; bestela, ordea, patologiak sortuko dira. Aukera biak eskaintzen dizkigute, beraz: osasun-iturri izatea edo gaixotasun-iturri.

**- Zelan sakonduko duzu bilatzen duzun helburu horretan? Zer nahi duzu argi geratu dadin?**

Bizitza askatasunean bizi behar dugula: hori da funtsezkoena. Askatasun barik gauza gutxi konponduko dugu: hortik edonon izaten ditugun ondorioak: hesteetan, kolonean, gibelean...

**- Zertan egiten dugu kale helburu osasuntsu horren bila? Zer gomendatzen duzu?**

Beldurrak lotzen gaitu, bereziki: inguruko jendea galtzeari, ez gaituztela maiteko, etxea kenduko digutela, gure seme-alabei zeozer gertatuko zaiela, lana galtzeko arriskua dugula... halako askorekin bizi gara. Zelan irten korapilo horretatik? Hasteko, konfliktuak jabetu behar dugu eta berbalizatu, baten bati kontatu... Soluzioaren bidetik abiatzeko, jakina, ikasi egin behar dugu. Badiara soluziorik ez duten gatazkak: heriotza, esaterako. Horrelakoetan onartu besterik ez zaigu geratzen; ez gaitezen galerari lotuta geratu.

**- Medizinarekin lotutako alderdi asko lantzen dituzu. Bateragarriak dira guztiak?**

Guztien arteko konbinaketa jotzen dut egokitza, ez dut uste sistema hoberik dagoenik. Hortik emaitza berriak lortzeaz gain, onenak ere ondorioztatzen direlako. Beste maila batera heltzen zara horrela eta,

gainera, bakoitzari komeni zaiona aplikatzen duzu, ez besterik. Denen artean, akupuntura da onena, abantaila gehien eskaintzen duena.

**- Akupuntura aipatzen duzula, ekialdekoek gu baino aurreratuago daude munduaren kontzepzioan?**

Alde handia kentzen ziguten, egia da. Baina Txinak izan zuen gosetearen ondoren, aurreratuen eta gehien zekitenean aurka egin zuten eta horiek behartuta ikusi zuten euren burua alde egitera. Horrela etorri ziren bai Europara, bai AEB-ra.

**- Zeozertan aurreratu dugu minbiziari aurre egiterakoan?**

Zientifikoki oso gutxi aurreratu dugu. Hor geneen eta kutsaduraren eraginean zentratzen dira batez ere eta, azken urteotako nire esperientziak erakutsi didanez, gure bizitza motak du garrantzi handiagoa: bakar-dadeak eta bizi-larritasunak jaten gaituzte.

**- Arineketan egiteari demaseko garrantzia ematen diozu. Hainbesterako da? Ez da nahikoa oinez ibiltzea?**

7-8 urteko ume batek antxixketan besterik ez du egiten eta ez da nekatzen. Gizakiok arineketan egiteko diseinatuta gaudela: bai harrapatze eta baita harrapa ez gaitezen. Odolak zirkulatu egin behar du: metabolismo hori ez bada gertatzen, odolak gure organismo guztia zikinduko du bestela. Forrest Gump-en ikusi genuen hori. Ibiltzea oso geldoa da, ez du ezer konpontzen, bidean burua jateko astia ematen dizu-eta. Bihotzari martxa eman

**"Ez naiz alternatiboa; gomendatzen dudana probatuta dut aurretik"**

behar zaio. Foballean jokatzeko hasi naiz berriro eta oso osasuntsua da, agresibitate bideratzeko modua eskaintzen baitizu, gorputzak eskertzen ditu kirol horretako lasterketa motzak.

**- Medikuntzari, egituratuta dagoen moduan, hutsuneak ikusten dituzue? Zu alternatiboa zara?**

Medikuntzak akats batzuekin jarraitzen du... badakizu, lurra biribila den, edo laua. Kontuz ibili behar da, sura bota ez zaitzaten. Nik, neure aldetik, ditudan ezagutzak erabiltzen ditut eta ikertzen jarraitzen dut. Hori bai, ez naiz alternatiboa: beti aurretik probatu egiten dut, ondoreneko efektuak zeintzuk diren jakiteko.

**- Diozue, ez dago minbizia eragiten duen sustantziarik. Baina baita elikadura osasuntsuak ez digula ziurtatzen minbizirik ez dugula izango.**

Denok ezagutzen ditugu esan didazunaren adibideak. Hori bai, gorputz osasuntsu batek errazago izango du konfliktuak konpontzea. Tabakoak minbizia sortuko balu, erretzen duten guztiek izango lukete. Baina konfliktuak konpondu ez dutenak bakarrik gaixotzen dira. Sustantziak toxiko bihurtzen dira neurri ez egokian hartzen baditugu: ura sudurretik edaten badugu, biriketara joango zaigu; oxigenoa behar dugu, baina %100ean kalte egingo digu.

**- Zer esan nahi duzu gaixotasun guztiak onartutako programa biologikoak direla diozuean?**

Ordenagailuen antzera bizi gara. Gure disko gogorrak arbasoetatik heredatutako programak ditu eta horren aurrean erreakzionatu behar dugu. Horko programa bat zelari jarraitu asmatzen ez dugunean gartzatzen dugu gaixotasuna.



# Konsumorako bide alternatibuak

Eibarko EH Bilduk antolatuta, "kapitalismuaren aurrian aldaketa praktiko eta errealak egon badaguazela erakusteko" lau hitzaldi egingo dira datozen egunotan Portalean, 19.00etan: apirilaren 1ian bertako elikadura freskuaren ingurukua emongo dabe Errigora eta Aza Ta Porrua alkartekuk; apirilaren 2xan, barriz, GoiEner energixa barriztagarrixen inguruko azalpenak emongo dittue; apirilaren 8xan Emaus fundaziñokuak hondakiñen berrerabilpenerako euren eredia esplikatuko dabe; eta, amaitzeko, apirilaren 9xan FIARE banka etikuaren gaiñian jardungo dabe berbetan. Landuko dittuen gaixeri begiratuta, GoiEner energixa proiektua ezezagun bezain interesantia topau dogu eta hitzaldixa baiño lehen horren inguruan gehixago jakin nahi izan dogu.

**SANTIAGO OCHOA DE ERIBE (GOIENER-EKO ZUZENDARIXA)**

## "Herrittarrak sortutako kooperatiba energetikuak oiñ arteko eredia kanbixau leike"

**- GoiEner zer dan azalduko dozu hitzaldixan, baiña modu laburrian esplikaue zeinke?**

GoiEner kooperatiba energetikua da, irabazteko asmo bakua eta herrittarrak sortutakua. Helburua gaur egungo eredu energetikua aldatzia litzake eta, horretarako bidia enpresia sortzia danez, enpresa hori kooperatiba izatia erabagi genduan. Guretako inportantia da herrittarrak sortutakua dala eta, gaiñera, irabazteko asmorik bako enpresia izanda be, bideragarria izan bihar da. Baiña gure kooperatiban etekiñak lortu ezkeru, ez dira bazkidien artian banatzen, diru hori atzera be gure lurraldian inbertitzeko erabiliko da, lanpostuak sortzeko, efizientzia energetikuaren mesedetan.

**- Eta zelan animau zifiazien holako proiektua martxan ipintzen?**

Gure hasierako asmua energixa barriztagarrixia ekoiztia zan, gure energixaren jabe izan nahi dogu gure lurraldian. Izan be, Euskal Herrixak menpekotasun energetiko oso haundixa daka, hamen konsumitzen dogun energixaren %90 baiño gehixago kanpoko enpreseri erosi bihar detsagu. Hori aldatzeko aukeria baze-guala ikusi eta 2012ko urtarrillian kooperatibia sortu genduan. Baiña sortu eta



berehala, gobernuak barriztagarrixeri ordura arte emoten zetsazen primak kentzia erabagi eban eta horrek miñ haundixa egin zeskun, proiektuak garatzeko gure ahalmena erabat murriztuta geratu zan-eta. Gaiñera, legia aldatu eta atzera-eraginezko izaeria zekala ikusitta, ziurtasun eza eta ezegonkortasuna nagusitu ziran gure artian. Edozelan be, horrerri aurre egiñ eta beste ardatz bati heldu gentsan eta energixaren %100 gu merkaturatzen hasi giñan.

**- Zer egin bihar da GoiEnerren sartzeko?**

Interesa dakanak bazkide egittiarekin nahikua daka kooperatibako parte-hartzaille izatera pasatzeko. Bazkide egitteko 100 euroko ekarpena egittia eskatzen dogu eta, trukian, GoienErrekin argindarra kontratatzeke eskubidia, zerbitzu osua eskintzen detsagu. Gaur egun 1.500 bazkide gara. 2013ra arte ezin genduan fakturarik emitidu, baiña beste enpresen moduan geuk be fakturak emititzen hasi eta hortik aurrerako zabalkundia asko erraztu da, jendiak hau benetakua dala ikusteko asko laguntzen dau horrek.

**- Zergaittik komeni jako jendiari GoiEnerre aldatzia?**

Bakarrik diruari begiratzen badetsagu, horretan ez dago ezberdintasun haundirik, antzerakua pagatzen da argindarra betiko enpresa batekin kontratauta euki edo GoiEnerrekin euki. Abantaila ekonomikua baiño gizarte maillakua da, aukeratzen dan eredian eta horretan parte hartzeko aukeran dago abantaila haundiña. Energia ekoizle haundixen erabagixak sarritan gure kalterako izaten dira, baiña horrerri aurre egitteko modua badago, beste eredu bat aukeratu geinke.



**E**nergixa, batez be elektriku, gaur egungo gure gizar-tian oiñarrizko ondaren billakatu da. Edateko ura edo jateko elikagaixak moduan, elektrizidadia premiñapremiñazkua da gu guztiondako. Baiña subiranotasun energetikua, ordea, ez dago herritarren esku eta hori aldatzeko asmuarekin sortu eben GoiEner, "subiranotasun energetikua berreskuratu nahi dogulako, gaur egunian sektore elektrikuan liberalizatuta dagoaz esparruetan, merkaturatzian (energixa erosketan) eta sorkuntzan sartuta".

GoiEner-ekin bat egittek arrazoen artian, bestiak beste, h6nek aittatzen dittue proiektuko arduradunak: "Berriztagarrietan jatorri-ziurtagirixa dakan elektrizidadea konsumitzeko, gain-kosturik pagau barik. Gure energixa garbixa ez da



beste energia 'zikiñak' baiño karuago pagatzen. Gaiñera, gure kidiak konsumitzen daben beste energixa barriztagarri sortzeko helburua dakagu. Goiener-era pasatzia, bestalde, oso erraza da, interneten [www.goiener.com](http://www.goiener.com) helbidian sartu eta bertako formularixua betetzia, besterik ez dogu eskatzen, instalaziñuetan aldaketa teknikuak egin barik zuzenian GoiE-

nerreko energixa konsumitzen hasi leike". Bazkide egittek 100 euroko ekarpena egittia eskatzen dabe, baiña hortik kanpora be bazkide-laguntzaille izateko aukeria be eskintzen dabe: "Goieki, Fiare, Reas Euskadi, BioAlai, Berako Udala eta beste batzuren jardueraren barruan dago GoiEnerren parte hartzia eta hari laguntzia eta gaur egunian 1.000 euroko gixieneko ekarpenak egitten de-tsez alkartiari".



Datorren astian emongo daben moduko hitzaldixak proiektuaren zabalkunderako garrantzi haundixa dakela esan deskue: "Herri batian hitzaldixa emon eta denpora gixira, han inguruan bazkide barrixak egitten dittugula argi ikusten dogu. Azken batian, jendia al-daketia egittera animatzeko orduan gertuko baten batek esandakuak erabagixa hartze-ko bihar daben azken bultza-dia izan leike. Eibarren oiñ arte hamar bazkide dagoz, baiña hitzaldixa emon eta gero jendiak bata bestiar kontauta, gero eta ezagunagua egiñ eta bazkide barrixak erakartzia errazagua izango da".

**EGUNGO TARIFAK. GOIENER, S.COOP**

2014ko otsailaren 1etik 2014ko martxoaren 31era arte ezarritako tarifak

Kontratututako potentzia 10 kWtik beherakoa								
Orduetgia bereizten TÁRIFAS EZ duena (Denbora tartea 1)		Orduetgia bereizten duena (2 denbora tartea)			Orduetgia bereizten duena (3 denbora tartea)			
2.0A		2.0DHA			2.0DHS			
Potentzia	Energia (P1)	Potentzia	Energia (P1H)	Energia (P2H)	Potentzia	Energia (P1S)	Energia (P2S)	Energia (P3S)
€/kW urtean	€/kWh	€/kW urtean	€/kWh	€/kWh	€/kW urtean	€/kWh	€/kWh	€/kWh
42,043426	0,124107	42,043426	0,148832	0,057995	42,043426	0,150812	0,071879	0,044146



**Eredu alternatibua**

Bazkide egittia erabagitzen dabenak gaur egunian indarrian dagan energixa eredu kanbixatziaren aldeko jarrera militantia hartzen dabela diñue kooperatibako sortzailiak: "Kooperatibarekin bat egitten daben herritarrak ingurumenarekin konprometiduta dagoz eta, euren keiñu horri esker, gaur egunian dakagun energixa-eredua kanbixatzeko biharrian dabiz, hau da, energixa fosila merkaturatzen dabe konpaiñia haundixak kontrolatzen daben eredu aldatzeko biharrian dihardue".

**Izadi**  
LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

**Radio Eibar**  
CADENA SER  
104,0 FM

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egittien dira trasladoak

**NTRA. SRA. DE BEGOÑA**  
EHORZKETA-BEILATOKIA

- KOROAK • ESKELAK • HILARRIAK • AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txaltixa-Zelai, 4-6 - behea, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: 943 201095 Fax: 943 202564

## 16 eibartar helmugaratu ziren Azkoitia-Azpeitian

23 eibartarrek eman zuten izena eta 16k amaitu zuten Diego Garciaen omenezko XXI. Azkoitia-Azpeitia maratoi erdi. Bestalde, aurreko marka 25 segundoan jaitsita, Alex Opoitip keniarrak ordubetetik beherako marka berria ezarri zuen: 59 minutu eta 58 segundo. Emakumezkoetan, azkarrena Marta Tigbea izan zen (1:10:32). Herri-lasterketaren bigarren edizioan, 250 parte-hartzaile inguru izan dira 7,5 kilometroko proban: gizonezkoetan Endika Donnay izan da azkarrena eta Nerea Egiak irabazi du emakumezkoetan.



## Ttatt gimnasioko enaitza ezinhobeak wu-shun

Aurreko asteburuan Madrilgo Villaviciosa de Odonen jokaturako wu-shu Espainiako txapelketan Ttatt gimnasioko ordezkariak lan bikaina egin zuten eta, bost haraino joanda, hiru urrezko eta zilarrezko birekin bueltatu ziren Ramon Quinaren aginduetara diharduten kirolariak. Oingda modalitatean (borroka puntora) urrezko domina lortu zuten Mikel Astigarragak (75 kilotik behera), Sergio Osuak (70etik behera) eta Izaro Fernandezek (65etik gora) eta zilarrezkoa Iker Cid-ek. Asier Cuestak ere zilarrezkoarekin etxeratu zen sanda modalitateko 60 kilotik beherakoenen artean.

## Iazko irabazleak garaile berriro Dianako eskualdekoan

Iñigo Gisasola seniorretan, Haimar Gonzalez juniorretan eta Jose Luis Gisasola betaranoetan txapelkunak izan ziren Zambranaren jokaturako Diana elkarterko lehiaketan, zonaldekora sailkatzeko txapelketan. Hirurak txapelkunak izan ziren iaz Euskadikoan eta irailan jokaturako den Debabarrenekoan hartuko dute parte, beste hiru seniorrekin batera (Kiko Trincado, Valentin Ostiategi eta Enrike Isasi). Maila horretan hiru onenak joaten dira normalean, baina Iñigo Gisasola gaur egungo txapelketa denez laurak joateko aukera dute. Zambranaren 45 eper soltatu ziren eta 41 eper eta faisana bat harrapatu zituzten bazkide guztien artean.



## Durango txapelduna foball-zaletuan

Durango bigarrenari ateratzen zion zazpi puntuko aldeari eutsi dio eta, Kiroljokoa foball-zalatuaren liga txapelketa amaitzeko jardunaldi bi besterik falta ez direnean, txapela bereganatu du. Durangarrak 4-0 nagusitu zitzaizkien Alkidebakoei, Koskorrek 2-1 Esmorga gainditu zuen eta Txoko Sporting baino gehiago izan zen (4-1): emaitza horiekin bigarren posturako lehiak bizirik dirau, Koskorrek bi puntu kentzen baitizkio Txokori.

## Ruibal saskibaloiko 2. mailara jaitsi da

Denboraldia amaitzeko lau jardunaldi geratzen direnean, aurreko zapatuan Ipuruan Donostiako Atleticoaren aurka galdutako partiduekin (53-62) eibartarrek badakite datorren urtean 2. mailan jokaturako dutela. Azken jardunaldiotan goranzko joera erakutsi arren, batez ere sailkapeneko goi aldeko tal-

deen aurka, partiduetako azken minutuetan amore eman behar izan dute askotan.

Katu Kalek, bestalde, errepasso ederra eman zion liderrari eibartarrek denboraldian jokaturako partidurik biribilenean. Sailkapeneko puntu gehien eskuratutuen taldea da Eibarkoa.



Denboraldi bakarra egin du Ruibalek 1. mailan.



## Ipuruako igerilekua itxita bihar arratsaldean

Igeriketako benjamin eta alebin mailetako ligako laugarren jardunaldia jokatu da bihar Ipuruako igerilekuan; hori dela-eta, itxita egongo da arratsaldeko 16.00etatik 20.00etara. Bestalde, aurreko zapatuan Urbateko Ander Romaratek eta Nora Varelak Donostiako Anoretan igerilekuan jokatuak GIF sarian hartu zuten parte eta hurrengo erronkei

begira baita sasoi onean daudela erakutsi: Romarate Madrileran doa aste honetan Euskadiko selekzioarekin komunitate erkidegoen arteko Espainiako txapeketara eta Varela apirilaren bigarren astean Espainiako Opena jokatu du Mallorcan.



## Binakako txapelketa Astelenan berriro



*Xalak eta Zubietak finala jokatzeko txartelaren bila abiatuko dira hasieratik.*

Pilota profesional mailako binakako txapelketa finaldietako ligaxkan sartuta, lehenengo jardunaldia jokatu da asteburuan. Domekako norgehiagoka Astelenan izango da, Asegarceko Urrutikoetxea eta Beroizekin eta Aspeko Xala eta Zubietarekin. Partidu nagusi horren aurretik, jaialdia Retegi Bi - Rezusta vs Aritz Lasa - Tolosa partidurekin hasiko da eta, amaitzeko, Apezetxea eta Larrinagak Mendizabal III.a eta Peñarikanori egingo diete aurre.

Afizionatu mailan, bestalde, martitzenean Deba Arroko Txapelketa abiatuko da eta hor Klub Deportiboko ordezkariak gazte eta helduen mailan hartuko dute parte. Apirilaren leian, beraz, 19.00etan Astelenan Narbaiza eta Izagirre gaztetan eta Arribillaga eta Unamunzaga (edo Bengoetxea) helduetan Elgoibarko bikoteei egingo diete aurre. Hurrengo barixakuan, bestalde, Udaberriko kaiolaren barrukoa hasiko da.

## Zortzi eibartar Ebro lasterketan

Aurreko domekan Ebro Lasterketaren 8. edizioa jokatu zen Zaragozan eta han izan ziren gure herriko zortzi ordezkari, batzuk 30 kilometro egiteko eta beste batzuk 14 baka-rik. Iosu, Juanjo, Enrike, Jose, Javi, Jorge, Iñaki eta Igorrek gogor egin behar izan zioten aurre haizeari (ziertoari, hobeto esateko). Hala ere, denek amaitu zuten.



## Klub Deportiboaren ohiko batzarra

Apirilaren 4an, barixakuan, egingo du Eibar-ko Klub Deportiboak urteko ohiko batzarra, 20.00etan hasiko den bigarren deialdian. Gai ordenean, aurreko akta onartu ondoren, 2013ko ekintzen memoria eta kontuak onartuko dituzte, azkenik galderak eta eskariak az-

tertzeko. Jarraian, ezohiko batzarrean, zuzendaritza batzorde erdia berrituko da, kargu hauek hain zuzen: presidentea, presidenteordea, idazkaria, diruzaina eta Espeleologia, Pilota, Mendia, Atletismoa, Xakea eta Urpeko Ekintzetako batzordeetako arduradunak.

## berriak

### FOBALLA

Eibar Foball Taldeak 2. A mailako lider jarraitzen du liga amaitzeko 11 jardunaldi falta direnean. Bihar Ipuruan Bartzelona B hartuko du, 18.30etan hasiko den lehia (partidua ETB-1ek eskainiko du zuzenean)



### KARATEA

Aurreko zapatuan Azkoitian jokatuak alebin mailako Gipuzkoako txapelketan, Kalamua hiru ordezkariekin izan zen: Xuban Hoyosek urrezko domina eskuratu zuen eta Gipuzkoako txapela jantzi, Miren Elorza 5. postuan sailkatu zen eta Jon Iglesiasek ez zuen zorterik izan.

### TXIRRINDULARITZA

Eibarko Klub Deportiboko Debabarrena taldea zapatuan Laukizen izan zen (Xabier Bengoetxea izan zen taldeko onena, 17. postuan) eta domekan Lizarran (Beñat Etxabek seigarren amaitu zuen eta Jokin Etxabe ihes eginda egon zen). Etzi izen handiko proban izango dira Debabarrenekoak, Gorko Gorkoan hain zuzen.

### ESKUBALOIA

Tekniker Eibar Eskubaloia kadete mailako taldea Euskadiko txapelketako azken fasea jokatzeke txartela eskuratu du liga amaitzeko jardunaldi baten faltan, aurreko astean jubenilen taldeak lortu zuen moduan. Foru Aldundiko txapelketan Melfun taldeak 12-45 irabazi zuen Arrasaten.

Emakume gutxi izango dira foballean **MAIDER CASTILLO** eibartarrak egiten diharduen ibilbidea burutzeko gauza. 1989an Eibartarrak-en hasi zen eta hamar urte geroago Torrejonera egin zuen jauzia, han bi denboraldi egin eta Levantera pasatzeko. Hamalagarren denboraldia dihardu egiten Valentiako taldean. Taldeko kapitaina da eta, Superligako hainbat titulu irabazteaz gain, selekzioan ere askotan izan da. Pilak ez zaizkio gastatu eta oraingoz goi mailan jardutea besterik ez du buruan.



## MENDE LAURDENA FOBALLEAN... eta jarraitzeko gogoarekin

**- Zelan gogoratzen duzu Eibartarrak-ekin jokatu zenuen sasoi hura?**

Bestelako foballa zen hura. Aste osoan Gasteizen egoten nintzen ikasten eta baxiakuan bakarrik entrenatzen nuen; hobby moduan geneukan. Orain ezin dut ordukoa egin, baina konpromisoa bera da. Gogoratzen dut sasoi hartako entrenamenduetan inork ere ez zuela kale egiten. Hilero dirua ipintzen genuen, denboraldi amaieran bidaia bat egiteko. Sasoi hartako lagunak orain ere lagunak ditut.

**- Japonera joan zinen gero. Zelako esperientzia izan zen hura?**

Hiru hilabeteko kontua izan zen, 1998an, Espainiako selekzioarekin Eurokopa jokatu eta gero. Aldaketa handia izan zen eta gogorra egin zitzaidan. Bitan entrenatzen genuen egunero; siestarik ere ezin egin! Hizkuntza lortu nuen piska bat ulertzea, baina ez nintzen irakurtzeko gai. Hori bai, taldekideak laguntzeko prest zeuden beti.

**- Emakumeon foballak egin du gora? Ez doa geldoegi, kostatuko balitzaio legez?**

Bilakaera oso motela da, gizarte elitista eta matxista batean bizi garelako. Jendeak ez du aposturik egiten emakumeon foballaren alde, onartuta ere gauzak zeozer aldatu direla. Estatuan zortzi talde izango dira erdiprofesional moduan dihardutenak; besteak hor dabilta, erdipurdi.

**- Iaz izan zenuen lesio luzetik ondo errekuperatu zara?**

Lesioa gaingiduta daukat: urte guztiotan izan dudana lesio serio bakarra izan da. Sentsazioak onak ditut, jokatzeko dihardut eta oraindik ez dut erabaki noiz arte jarraituko dudana. Gaur egungo taldea gazteagoa dela, beste belaunaldi batekoa, eta fitxetan ere igarri dugu aldaketa. Taldearen aurrekontua dextente jaitsi da.

**- Zein herrialdetan dago emakumeon foballa indartsuago?**

AEB-etan, Europako iparraldean, Ale-

manian... hor hartu du indar gehien. AEB-etan profesional mailako liga jokatzeko, urte batean bai eta bestean ez; egia esan, han indar handiagoa du gizonezkoen foballak baino.

**- Noiz arte jarraituko duzu foballean? Pentzatu duzu lagatzea?**

Ikusteko dago. Entrenatzaile ikastaroa egiten dihardut 2. mailan, eta 3.a ateratzeko asmoarekin. Sei hilabeteko praktikak egin behar ditut. Gustatuko litzaidake irailan jarraitzea.

**- Jendeak jarraitzen dizuete? Askok joaten dira zuen partiduetan ikustera?**

Etortzen da, bai. Ez da Lezama bezain beste betetzen, baina familiarra ere ez da. Erdibidekoa da gure taldearen inguruan bizi duguna. Lehenengo taldeaz gain, filiala ere badugu.

**- Eibarren emakumeen taldeak indarra galdu du sasoi bateko Eibartarrak-en ondoan. Ikusten duzu orduko maila berriro lortzeko aukerarik?**

Zaila izango da ordukora bueltatzea. Ingaratuta gaude: Bizkaian Athletic-a eta Gipuzkoan Real. Horiek hartuko dituzte jokalaririk onenak.

**- Zelan bizi duzu gizonezkoen 2. A mailako taldearen lidergoa? Igo daiteke?**

Inork espero ez bazuen ere, talde lehiakorra osatu dute eta, halakoetan, ipurdia ere sartzeko dira golak. Konfiantza handia dute eta bigarren itzulian daramaten martxarekin 1. mailara igotzeko aukera handia dute. Hor daude emaitzak eta baita joko ere. Meritu itzela dute dauden lekuan egoteko.

**- Hala ere, normalean ez da jende askorik joaten Ipurua. 1. mailarako gutxi akaso?**


Hor duzu Getafe. Han ere jendeak ez du larregi erantzuten, baina urteak daramatza 1. mailan.





# EZTEIEN

## gehigarria



31. zenbakia - 2014ko UDABERRIko gehigarria -

PUBLIZITATEA: Itziar ALBIZU eta Belen ULAZIA Telefonoa. 943 20 67 76 Faxa. 943 20 28 72 [publizitatea@etakitto.com](mailto:publizitatea@etakitto.com)



**E**zkontza ondorengo bazkari edo afarian mahaien antolaketari gero eta garrantzi gehiago ematen zaio; garrantzitsua da antolaketa hori, gonbidatuak eroso sentitzeko ez ezik, baita estiloari eusteko ere. Ohiko mahai biribiletatik haratago, bestelako konbinazioak ere egin daitezke: bankete estiloko mahai luzeek eta itxura eta neurri ezberdinetako mahaiak nahasteak, adibidez, inguruari dinamika arina ematen diote eta errazago egokitu daiteke gonbidatukopurua mahaietan.

Saloi eta espazio txikiak kristalez inguratzen dira leiho haundi edo olan gardenarekin egindako karpekin, eta ahal dela, lore eta landare askorekin: kanpoaldea barrualdean integratzeko modua. Mahaiardiko loreak estilizatuagoak dira orain, mahaiaren alde bateko zein besteko gonbidatuek traba barik berba egin dezaten. Bouquet txikiak ere jar daitezke, erraz mugi daitezkeenak.

Argiztapena ere aldatu egin da. Argi naturalaren alde egiten da orain, argi-puntu estra-



tegikoak erabiliz, eta erromantizismo ikutua ematea nahi baldin baduzu kriseiluak edo antortxak jar ditzakezu hondartzan edo aire zabalean ezkontzen baldin bazara. Mahaiardikoa osatzeko kolore ezberdinetako mahai-zapiak eta eskuz idatzitako txartelak jar ditzakezu, esker oneko oharra, menua...

Jatekoari eta edatekoari

dagokienez, bazkaldu edo afaldu aurretik gonbidatuei mokadutxo bat eskain diezaiekezu, sorbeteak, te izoztuak, zukuak edo bestelako freskagarriekin, batik bat uztaile edo abuztuan egiten diren ezkontzetan.

Indar haundiarekin datorren joera birziklapenarena da: apuntatu zaitez eko modara eta jarriozu imajinario

apur bat. Ezkontza jasagarrikeri zeremoniak ingurumeneari eragin dezakeen inpaktua murriztea dute helburu: birziklatutako paperarekin egindako gonbidapenak eta paper-gauzak, kontsumo baxuko argiztapena, gauean egin beharrean ezkontzak eguerdian ospatzea, menu organikoak edo ezkongai eta gonbidatuentzat garraio ekologikoa.

Ezkontza-tartari dagokionez estalki arinak eta testura leunak modan daude, eta baita minipostreak edo cupcake-ak ere.

Berdea, urdina eta labanda dira 2014ko ezkontzetan gehien ikusten diren koloreak, zuria, artile-kolorea eta beixarekin erraz konbinatzeko modukoak direlako, eta lore-sorta aukera zabala jartzeko aukera ematen dutelako, mahaietan zein elizako dekorazioan.

Gonbidatuei banatzen zaizkien opariak ere ezin ditugu ahaztu; gozokiz egindakoak tendentzia dira, bonboiak, karameluzko bastoitoak edo koloretako grageak, adibidez.



*Ezkontza egunean ezin hobeto jantzita egoten lagunduko dizugu*

ARRAGUETA 9

**Iritsa**

943 12 71 06





CALBETON, 16  
-EIBAR-

**ROCA**

TEL. 943 20 80 06

**Ezkontza egunerako guztia...  
...ZURE ESKU!**





**CASTAÑO**  
PELUQUEROS

943 207047      contacto@castanopeluqueros.es  
c/ Fermin Calbeton, 1      www.castanopeluqueros.es

BILATUIGUZU GURE SARE SOZIALETAN

facebook.com/castanopeluqueros  
 twitter.com/castanopelu

Aire berriak!

Estaziño, 4  
943 254776

**Khôl** Estilistak

**ROSANA**  
ILEAPAINDEGIA

943 120624

URKIZU PASEALEKUA, 7 - BEHEA

BOUTIQUE

Iifar kale, 6      943 702024

**EN boga**  
ESTILISTAK

Den-dena **9'99** euro



Bidebarrieta, 5      Tel. 943 201 547

**C A P I**  
www.capiestetica.es

**Aurpegi tratamenduak**

- Radiofrequentzia (zimurrak)
- Mantxak (**BERRIA**)
- Mikrodermoabrasioa

**BETILE LUZAPENAK**  
**GEL ATZAZKALAK**  
**IA BETIRAKO MANIKURA**

**LASER DEPILAZIOA** **30€**  
zona bakoitza

Hanka osoak + Izterondoak: 90€

**Gorputz tratamenduak**

**TEKNIKAK:** Kabitazioa / Radiofrequentzia / Laser lipolitikoa / Presoterapia / Elektroestimulazioa

**5 saioko BONOAK / Zona bat: 35 euro saioa**



RPS 189/09

**keraLa**  
www.estetikakerala.es  
www.cosmeticadelbienestar.es

Urkizu, 11 solairuartera 943 53 05 25

**Makillajea Etxean Bertan**

Estetika Tratamenduak, Manikura, Depilazioak, Emaztegiandako BONO BEREZIA...

**FOTODEPILAZIOA**  
30€  
Zona/Sesioa

- Fotodepilazioa
- Argizarizko Depilazioa
- Depilazio Elektrikoa
- Masajeak
- Gorputz Tratamenduak
- Aurpegi Tratamenduak
- Makillajeak
- Manikura eta Pedikura

**irei**  
estetika

Errebal 15 behea. EIBAR (Coliseo ondoan)  
Tel. 943 257 557

**E**maztegiaren lore-sorta ezkontza egunean eramango duen osagarriarik garrantzitsuenetakoa da, baina deigarria gerta dadin, eta gonbidatuak aho zabalik lagatzeko, momentuan zer eramaten den jakitea inportantea da. Datozen hila-beteotan ezkontzekoa bazara, 2014an emaztegiaren lore-sortetan ikusiko ditugun joeren berri duzue jarraian.

Lore-sorta xumea: Beste sasoi batean lore ugariz osatutako sortak modan zeuden ere, baina azkeneko urteetan joera kontrakoa da: lore gutxiz osatutako sorta xumeak eramaten dira eta espezie bakarrek, kala eta bitxilorena, esate baterako.

Kolore biziak...: Horixe da 2014rako beste joeretakoa. Atzean gelditu da, ezkontzako soinekoari itzalik ez egiteko, kolore argiko loreak aukeratzeko joera. Orain, emaztegiak, lore-sortak atentzioa ematea nahi dute eta kolore horia, laranja, morea edota urdina aukeratzen dituzte.

...edo pastel-koloreak: Zuria eta pastel-koloreak dira emaztegi erromantikoaren aukera nagusiak. Ezkontza 'vintage-etan' gero eta gehiago ikusten dira kolore horiek, sofistikazioa ematen diote eta.

Garia landa-giroko ezkontzetan: Orain dela urte batzuk emaztegi baten esku artean galburua ikustea pentsaezina



zen. Baina 2014an garia joera bihurtu da emaztegiaren artean, batik bat landa-giroko ezkontzetan.

Lore bakarra: Horren alde eginez gero, rosmelia da aukerarik onena. Orain dela gutxira arte inor gutxik ezagutzen zuen lore hori, baina gaur egun horren alde egiten dute lore-sortan lore bakar eta haundia eraman nahi duten emaztegiak. Erosotasunaren aldeko joera!

Sorta desmontagarria edo opari-sortak: Izenak berak dioen moduan, sorta txikiz osatutako lore-sortak dira;

horiek desmontatu eta hortik ateratzen diren sortak, normalean, senide edo lagunaren artean banatzen dituzte ezkontzetan.

Alternatiboak: Gutxienekoak badira ere, gero eta gehiago ikusten dira bitxi-sortak, oihal-sortak edo gozokiz egindako lore-sortak. Hondatzen ez den lore-sorta edo gonbidatuak zur eta lur lagako dituen nahi duten ezkontzaientzat aukera ezin hobea izan daiteke hau.



arropak eta osagarriak

**laguinda**

Bidebarrieta, 18  
943 20 84 41

San Juan, 1  
943 20 33 29

**Itzi**

943 20 88 47  
688 67 89 34

**LORA DENDA**

*Marca*

Isasi, 16 eta  
El Corte Ingles:  
T. Etxebarria eta Ego-Gain

Bidebarrieta, 1

**Laumar**

Tel. 943 20 16 26



**EZKONTZA tartak eta despedidetarako (ENKARGUZ)**

**ANTXON DEGUSTAZIOA**

T. ETXEBARRIA, 13  
Tel. 943 20 63 22  
943 20 05 47

Bidebarrieta, 28 943 20 79 73

**San Andres gozotegia**

Ezkontzetarako tartak eta opariak prestatzen ditugu

**fasprint**

**Inprimategia**

Aukera zabala ezkontza gonbidapenetan eta papertegian orokorrean

fasprintei@yahoo.es - www.imprentafasprint.es  
Ego Gain 11 ac - EIBAR - Tel./Faxa: 943 20 16 13

**BITXITEGIA - ERLOJUDENDA**

**MARRODAN**

T. Etxebarria, 24 Tel. 943 20 73 04

**BIDAIA PERTSONALIZATUAK**

**Gure gidariekkin Prezio lehiakorak**

Gure produktu berezienak:  
Venezuela, Costa Rica eta India

Azken aldian:  
Estatu Batuak, Kubarekin nahastuta

**bidaiak** 94 465 75 77  
Matienan gaude Eibartik 10 minutura (autopistan Abadiñoko irteera) **www.bagoaz.com**

Zuen egun haundirako menu pertsonalizatuak 50€ tik hasita

943-853412 **AZKOITIA**

**Joseba JATETXEA**

josebajatetxea@hotmail.com  
www.josebajatetxea.com

[www.kantabriajatetxea.com](http://www.kantabriajatetxea.com) Arrate Gaina, 4  
[kantabria@kantabriajatetxea.com](mailto:kantabria@kantabriajatetxea.com) 279 Postakutxa  
20600 EIBAR  
Tel. 943 121 262

**KANTABRIA**  
*Jatetxea*

EZKONTZAK  
BATAIOAK  
JAUNARTZEAK

RESTAURANTE KANTABRIA  
KANTABRIA.JATETXEA



## Ustekabekoak, Balmasedan asteburu-pasa

Aurreko asteburu osoa Balmasedan eman zuten Ustekabe fanfarrekoek, "lan-kontzentrazio intentsiboa" egiten. Musikarien berbetan, "ikasturte hasieran irailetik maiatzera bitarteko lan-plangintza prestatu genuen eta hileotan gogotik entsaiatzen jardun dugu. Egingdako beharraren emaitza ikusten hasi da, baina laster oraindik gehiago antzemango dela pentsatzen dugu". Txarangako kideek diotenez, "nahiz eta ur-

te guztian beharrea jardun, asteburu oso bat trebakuntzari eskaintzea interesgarria zela iruditu zitzaigun eta, ahalik eta entsaio-ordu gehien egin ahal izateko, fanfarreko kideek barixakutik domekara bitarteko orduak elkarrekin ematea erabaki genuen".

Asteburua Balmasedako La Garbea nekazal-turismoan eman dute: "Euskal Herriko aterpetxe asko aztertu genituen eta, Balmasedako La Gar-

beak 15-20 musikari hartu eta bertan entsaiatu ahal izateko baldintza egokiak zituenez, bertara joatea erabaki genuen. Jarraian, hango udalarekin harranetan jarri eta, han egongo ginela aprobetxatuta, elkarlanean emanaldia antolatu genuen domeka eguerdirako".

Beharra gogotik eginda ere, hortik aparte beste gauza batzuk egiteko tartea ere hartu dute gazteek. Lau entseguekin batera, sukaldaritzaz gozatze-ko aukera izan zuten eta, La Encartada museora egindako bisitan, industrializazio garaian txapelak nola egiten ziren bertatik bertara ezagutu zuten.

Musika Eskolako ikasle talde batek orain dela 14 urte sortu zuen fanfarrea gaur egun 16 eta 27 urte bitarteko 19 musikarik osatzen dute. Herriko jaiak alaitzen hasi zen fanfarrea gaur egun beste txaranga askorentzat erreferente bilakatu da:




"Ustekabek bere erreperatorio zabal eta landua etengabe berri-zen du: kalejirak, pasodobleak, mexikanadak, euskal kantu tradizionalak, euskal rocka, estilo guztietako nazioarteko kantu ezagunak... Gainera, partiturak bereziki neurri-egiten edota konpontzen ditugu eta kide guztiek musika ikasketak egin ditugu".



## Funk Off!-en bigarren urtebetetze jaia

Zapatuan, gauerditik aurrera, Funk Off! kolektiboaren bigarren urtebetetzea ospatzeko jaia egingo dute Koskor tabernan, "Get Down to the Cosmic Room" goiburuari jarraituta. Aurretik egin dituzten jaien bide- tik, honetan ere musika izango da protagonista, abestiak aukeratzen eta eskaintzen ibiliko diren disko jartzaileekin batera.

Bihar gauerako osatu duten kartelak honako hauek batzen ditu: Xane (Nerea Gorostidi, Donostia), Boocos Dust DJ aka LANDERGROUND (Donostia) eta Gorku (Eibar aka Little Detroit). Sarrera librea da eta antolatzaileek jende guztia animatu nahi dute urtebetetze jai berezia eurekin batera ospatzera joateko.



## Animal Blues Band zuzenean

Zapatuan, 23.00etan Animal Blues Band taldearen kontzertua hasiko da Ez Dok tabernan. Antolatzaileek adierazi digutenez, "taldeak eskainiko dituen abestietan batez ere blues, rock, r'n'b eta soul doinuak nagusitu-ko dira, beti ere jazzaren eragin nabarmenarekin". Kontzertuetan eskaini ohi dituzten abestien artean, beste askorekin batera, Willie Dixon-en "Hoochie Coochie Man", Tap Benoit-en "Bone Pickin", Johnny Winter-en "Self Destructive Blues" edo Robben Ford-en "Nothing to Nobody" modukoak daude.



## "Made in Eibar" dokumental lehiaketarako ikastaroa

Udalak Eibarko enpresek egiten duten beharri buruzko dokumental lehiaketa antolatu du "Made in Eibar" goiburuari jarraituta. Lehiaketan ahalik eta nerabe eta gazte gehien parte hartzera animatzeko asmoz, formakuntza ikastaroa antolatu du. Parte hartu nahi dutenek dokumentala osatzeko beharrezkoak diren atal ezberdinen inguruko oinarritzko ezagutzak jasotzeko aukera izango duten. Ikastaroa euskeraz emango dute Itzamna akademiak, apirilaren 5, 12, 14, 15 eta 16an, 11.00etatik 13.00etara (klaseak Juan San Martin liburutegian izango dira). Ikastarorako izena ematen dutenek ikus-entzuzko oinarritzko atalak landuko dituzte: kamaren nola erabili, story board-a nola

egin, bideoa nola editatu, grafismoa, soinua eta beste hainbat. Ikastaroan parte hartzeko gutxienez 12 urte izatea eskatzen dute eta prezioa 8 eurokoa izango da Eibarren erroldatuta daudenentzat (13 eurokoa kanpokoentzat). Ikastarorako izena jende gutxi eman duela ikusita, apirilaren 4ra arte luzatu dute matrikulazio-epea, beraz, norbait animatuz gero oraindik parte hartzeko moduan dago.

### Lehiaketa

Ikastaroa egiteko arrazoia nagusia, jakina, "Made in Eibar" dokumental lehiaketara aurkeztea da. Antolatzaileek azaldu dutenez, "lehiaketara aurkeztutako lanetan industria zertarako den islatzea nahiko genuke. Hau da, herriko enpresen edo moduren batean gure herriarekin lotuta dauden produktuen garapena erakustea da helburu nagusia. Tailerretako produkzio-lana baloratu nahi da, prozesua, lana, metodoaren premia eta garrantzia azpimarkatuz. Horrekin batera, sortzen diren dokumentalen bitartez enpresek egiten dituzten produktuen zabalkundean lagundu nahi da, nerabe eta gazteei beraien sormena garatzeko aukera emanez eta, era berean, belaunaldi ezberdinen arteko harremanak eta elkarriketak sustatu nahi dira".

Lehiaketara aurkezten diren dokumentalak euskeraz egin beharko dira eta gehienez 20 minutuko iraupena izango dute. Dokumentalak Pegoran entregatu beharko dira, 2014ko irailaren 15etik urriaren 31ra arte (14.00ak baino lehen). Bete beharreko baldintzen zein lanak entregatzeko moduen inguruko informazioa ere bertan eska daitezke. Hiru lan onenentzat aurreikusitako sariak 1.500, 1.000 eta 500 eurokoak dira.



javitxooo - Foto Plazaola 1964

*Herriko industria eta bere produkzioa dokumental bidez jasotzera animatu nahi dituzte gazteak.*


Funeraria-Ehorztetxe  
Mugica

EIBAR



Beilatokia  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)



Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 [www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea
GRUPO Funeuskadi



## Jorge Imaz Bolinaga

### KOMUNITATEEN ADMINISTRAZIOA

Bidebarrieta, 6 - 1. ezk.  
Tif. 943 53 03 03

[imazjorge@hotmail.com](mailto:imazjorge@hotmail.com)

## LIKIDAZIOA

Valenciaga



%50eko  
deskontuak

K O N F E K Z I O A K

Zuloagarren, 7
943 20 22 33

## Tailer digitalerako izen-ematea luzatu dute

Gertatu Foroak udalarekin lankidetzan antolatu dituen tailer digitalak aurkeztu zituzten martitzenean CodeSyntax enpresan. Azaldu zuten, "enpresa berriak sortzeko orduan horrelako gaiak kontuan hartzea komeni dela uste dugu. Tailer digital hauetan landuko direnekin zaletasunetik haratago joan daitekeela erakutsi nahi dugu, afizio horretatik ofizio edo lanbidea sor daitekeela, kontsumitzaile hutsa izatetik parte-hartzaile aktibo izatera pasoa eman daitekeela". Gaur egun hamabost behargin dauzkan CodeSyntax bera "open directory" proiektu batetik sortu zela gogor ekarri zuten ekitaldian.

Asmo horrekin, CodeSyntax-ekoek euskaraz emango dituzten tailer bi antolatu dituzte: "Geolokalizazio aktiborako tailerrea", besteak beste, GPS-a zer den eta

nola erabili, geolokalizazioa erabiltzen duten aplikazio sozialak zeintzuk diren, Google Maps, MAPFactor, OpenStreetMap... nabigazioarako aplikazioak erakutsiko dituzte eta, horrekin batera, ikasleek GPS sistema aisialdirako ekintzetan nola erabili eta Wikiloc, ibilbideak.euskadi.net, OruxMaps bezalakoetan ibilbideak partekatzen ikasiko dute. Portalean emango da, apirilaren 1ean eta 3an, 18.30etatik 20.00etara eta gaur da izena emateko azken eguna.

"Auzolan digitala Wikipedia editatzen" ikastaroan Wikipedia bezalako proiektu batean lan egiteko tresnak erakutsiko dituzte: wiki bat zer den, edukiak eta esku-



Martitzeneko aurkezpenaren irudia. SILBIA HERNANDEZ

menak, Wikipedia eta erabilpenak (testuak, irudiak, bestelakoak...) eta edukiak nola sareratu eta partekatu. Klaseak apirilaren 8an eta 10ean izango dira, 18.30etatik 20.00etara Portalean eta apirilaren 4ra arte eman daiteke izena. Ikastaro bietarako matrikula Pegoran egin behar da (Eibarren erroldatutakoentzat 6 euro balio du eta besteentzat 10 euro).



Lehenengoko etaparen irudiak. PERIKO IRIONDO



## Mugarrien bigarren etapa


Bihar egingo da "Eibar mugarriz mugari" ibilbidearen bigarren etapa eta irteeran parte hartzen dutenek Ego errekararen eskuma aldeko mugariak (35 guztira) ikusteko aukera izango dute. Goizeko 08.00etan Klub Deportiboaren parean elkartu eta Azitainera abiatuko da taldea. Handik, Loiola baseritik gora joango dira, Irure auzoraino ailegatu eta eguneko lehen bi mugariak ikusteko. Ibilbidean aurrera jarraituta, Illordo, Igartua, Aingeruarda mendia, Topinburu, Bergaretxe, Azurtza, Elgetako bidea eta Ibur igaroko dituzte, berriz Eibarrera buelta egin baino lehen. Martxoaren 15ean egin zen lehen irteeran 60 bat lagunek hartu zuten parte. Goizeko 08.00etan Klub Deportiboaren parean elkartu eta jarraian Zaldibar, Ermua, Markina eta Elgoibarrekin ditugun mugariak ikustera joan ziren.

## Argazkilaritza Maiatzean prest

Maiatza gertu daukagu eta, urteroko moduan Deporrek argazkilaritza batzordekoek jardura ugari antolatu dituzte Argazkilaritza Maiatzean programaren barruan, tartean zazpi erakusketa eta argazki rallya. Aurreratu dutenez, tailer interesgarriak eskaintzeaz gain, kalean martxan ipiniko duten argazki estudioan aurten aintzinako erretatuak egingo dituzte. Programa osoa interneten, Deporrek webgunean nahi duenak irakurtzeko moduan ipini dute. Jarduerak maiatzean izango dira, baina batzuetan alde aurretik izena eman beharko da: Jose Manuel Naviak maiatzaren 17an emango duen ikastarorako izena emateko epea datorren astean, apirilaren 1ean zabalduko da (20 euro balio du eta izen-ematea argazkilaritza@deporeibar.com helbidera idatzita egin behar da).



## Bertso desafioa Akaran



Apirilaren 4an Aimar vs Maddi II. Bertso Desafioa egingo dute Akara tabernan, 23.00etatik aurrera. Iazko arrakastarekin animatuta, aurten ere bertsoan jardungo dute Aimar Karrika auriztarrak eta Aimar Goenaga eibartarrak batetik eta Maddi Gallastegi zumaiarrak eta Maddi Sarasua itsasuarrak bestetik. Gai-jartzailea Ion Martinez izango da.



## Kezkako dantzariak Krakoviara

IZABELLA ZAMOJSKA



Kezka dantza taldekoak Poloniara abiatu dira gaur bertan, apirilaren 1ean Krakovian dantzan egiteko. Hango Historia Museoa antolatuta Europako "hobby-horse" edo zaldikoaren inguruko erakustaldia egingo da eta Kezkako dantzariak dantza erakusketan parte hartzen izango dira. "The Lajkonik's World. The Hobby Horse Throughout The World" jaialdian Polonia, Errumania, Katalunia, Suitza, Britainia Handia, Indonesia eta Euskal Herriko zaldikoak erakutsiko dituzte. Kezka dantza taldetik azaldu dutenez, "jakina da zaldikoa, zamalzaina edo hobby-horse izeneko pertsonaiaren antzekoak badirela Europa osoan, eta Krakovian ere bada Lajkonik izeneko zaldiko famatu bat. Mongoliar aireko jantziak soinean dituen tartariar itxurako bizardun batek irudikatzen du, egurrezko zaldikoarekin, eta Corpus Christi ondoko eguenean kaleratzen da".

## laburrak

### DOKUMENTAL BERRIA

Armeria Eskolak 100 urteko bere historiari buruzko dokumentala egin du eta estreinaldia apirilaren 8an (martitzenean) izango da, 19.00etan Coliseoan eta emanaldi bakarra eskainiko dute.

### BERTSOAK LEGARREN

Legarreko jai batzordeak apirilaren 5erako bazkaria antolatu du (14.30etan Legarre Gain elkartean) Mikel Arrillaga, Jokin Bergara eta Manu Goiogana bertsolariekin eta Asier Ibaibarriaga gai-jartzailearekin. Menuak 20 euro balio du (umeenak 10 euro) eta txartelak Legarreko Bolintxo okindegian eta La Parra tabernan eros daitezke.

### TUTE TXAPELKETA

Katu Kale tabernak tute txapelketa antolatu du. Martxoaren 31n hasiko den txapelketan izena emateko azken eguna bihar izango da (30 euro) eta partidak astelehenetik eguaztenara bitartean jokatu dira. Lehen saria izen-emateetan batutakoaren %75 izango da eta bigarrena %25.

## "Atrebentziatzko ipuinak" liburutegian

Bihar zapatua, 18.00etatik aurrera "Atrebentziatzko ipuinak" kontakizuna eskainiko du Zurrumuru antzerki taldeko Nerea Ariznabarretak umeen liburutegian, Zapatuko Ipuina programaren barruan. Ipuin kontakizuna hiru urtetik gorako umeentzat pentsatutakoa da eta, betiko moduan, sarrera doan izango da. Nerea Ariznabarreta eibartarra umetatik ibili da antzerki munduan murgilduta eta une honetan "En la lona" antzerki taldearen ikuskizunetan aktore moduan beharrean dabil.



Nerea Ariznabarreta-k aurkezten du

Atrebentziatzko ipuinak

Martxoak 29, larunbata  
arratsaldeko 6etan  
Sarrera dohainik

Juan San Martin Liburutegian



Umorea nagusi izan zen bertso saioan. LEIRE ITURBE

## Euskararen espektakulu bikaina

Gogotik egin zuten barre Oihan Vegaren "Euskararen Espektakulue" ikuskizunera joandakoek. Aurreko barriakuan ...eta kitto! Euskara Elkartean eskutik Portalean egindako monologo saioan bergararrak kontatutakoak entzunda, behin baino gehiagotan kostata eutsizion barreari adin tarte zabala hartu zuen publikoak.



## Bertso saio arrakastatsua

Giro ederrean eman zuten aurreko barriakuan arratsaldea Beleko tabernara gerturatutakoek, Beñat Gaztelumendik eta Alaia Martinek eskaini zuten bertso saioari esker. Tabernak martxorako antolatu duen egitaraua agurtzeko, bestealde, gaur gauerdetik aurrera kontzertua emango du Igor Arzuaga "Mara"-k.



# Antzerki Jardunaldia



**Martxoak 29**  
zapatua  
**20.00 / 22.30**  
Unibertsitatean  
**75 min. / 18 euro**

## "Que me aspen" (JOAQUIN REYES)

ZUZENDARIA: JOAQUIN REYES  
ANTZEZLEA: JOAQUIN REYES

Lan honetako sortzaileak azalduko digu zer gertatzen den galbaherik jartzen ez badugu hitz egiten dugunean. Kabaret giroan murgilduta, Reyesek hain ederki menperatzen duen hitz-jario etengabea eskainiko digu, ikusleon gozamenarako. Umore berezia.



**Martxoak 30**  
domeka  
**20.30**  
Unibertsitatean  
**90 min. / 5 euro**

## "Queremos ser los Seseman" (ARROJOS)

ZUZENDARIA: VICTOR MENDOZA  
ANTZEZLEAK: MARIBEL PALOS, AMANDA PADILLA, TANIA MORCILLO

Krisi ekonomikoa eta familiara, galduta dabiltzan nerabeek edo gizarte hipokresia dira antzezlanaren gaietako batzuk. Baina badago bat guztiak batzen dituen: inkomunikazioa, benetako drama soziala. Antzerki unibertsitarioaren adibide gaurkotuena.



**Apirilak 1**  
martitena  
**20.30**  
Coliseoan  
**80 min. / 11 euro**

## "Sexpearemente" (PROD. SEXPEARE)

ZUZENDARITZA: SEXPEARE  
ANTZEZLEAK: SANTIAGO MOLERO, RULO PARDO

Kabaret giroko hasieratik, antzoki handietatik igarota, une honetako zaplaztekoraino, geroz eta bere kultur nortasunetik urrutiago dagoen gure gizartearen kritika zorrotza azaltzen digute. Hamlet aukeratu dute, orain Garcia Lorcaren buru-hezurraekin.



**Apirilak 3**  
eguna  
**20.30**  
Coliseoan  
**100 min. / 11 euro**

## "Ajax" (TEATRO DEL NOCTAMBULO)

ZUZENDARIA: DENIS RAFTER  
ANTZEZLEAK: JOSE VICENTE MOIRON, FERNANDO RAMOS, ISABEL SANCHEZ

Antzezlan honetan ikusiko dugun Ajax noraezean dabil politika, traizioa, eromena, sumindura eta mendekua esparruen artean, eta batik bat erruduntasunarenean. Ildo klasikoa berreskuratuta, tragediaren edertasuna eta neurritasuna erabiltzen dira batez ere.

## Asier Serranoren 3 diskoak 10 eurotan ...eta kitto!-n



Gure herriko abeslari eta idazleak bere diskografia osatzen duten hiru diskoak deskatalogatu eta pack-a 10 eurotan ipini du salgai. Disko horiek 2002ko "Ez Esan Inori", 2003ko "Gerrari bai" eta 2005eko "Hoteleko kantuak" dira. EH Sukarrako kanta-idazleak eta Loreleiko abeslariak Gari, Tapia eta Leturia Band, Exkixu eta beste askorekin kolaboratu du, batez ere abestietako letrak egiten. Hiru diskoen pack-a erosi nahi dutenek ...eta kitto!-ko bulegotik pasa daitezke, bulego orduetan.

Bestalde, Eibarko idazlea asteburuan berriitu zen Euskal Idazleen Elkarteko zuzendaritza batzordean izango da. Jasone Osoro elgoibartarra izango da horko presidente berria (Ander Iturriotzen lekukoa hartuta) eta, Asier Serranorekin batera, Joxemari Karrere, Pako Aristi, Cristina Lasa, Josune Muñoz eta Jon Martin izango ditu laguntzaile.

## Asteburua Indianokuan

Martxoan egin diren eskulan guztiak egiteko aukera egongo da asteburu honetan Indianokua gaztelekuan. Horrekin batera, gaur sukaldaritza tailerra emango dute eta domekan Play eta Wii bideokontsolekin jokatzeko aukera izango da. Bestalde, Zuhatzara antolatuta duten irteerarako izena emateko azken eguna domeka izango da.





# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, JOKIN, eguaztenian 10 urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Josune eta Igorren partez.



Zorionak, NORA, martitzenian 5 urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat, printzesa, aitaxo, amatxo eta lkerren partez.



Zorionak, aittitta JOSE, eguaztenian urtiak egin zenduaz-eta. Muxu bat etxeko danen eta, batez be, Ander, Jon eta Lukenen partez.



Zorionak, JONE, gaur zure lehen urtetxua egin dozu-eta! Jarraittu haiñ alai eta txintxo! Muxu haundi bat, famelixaren partez.



Zorionak, MARIA! Haraiñegun hiru urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat, printzesa, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ENDIKA Varona, potxolo, gaur 10 urte betetzen dozuz-eta. Muxu haundi bat lagun eta famelixaren partez.



Zorionak gure otso maltzur eta tigresa printzesari.



Zorionak, ANDER, bixar bi urte egingo dozuzelako. Guraso, anaixa eta aitxitxamamen partez.



Zorionak, ANDER Egurrola, atzo 15 urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ANE Azpiri, atzo zortzi urte bete zenduazelako. Famelixaren partez.

## hildakoak

- Eulalia Alegre Cuesta. 77 urte. 2014-III-1.
- Julian Izpizua Erkoreka. 90 urte. 2014-III-22.
- Dolores Borrajo Lopez. 97 urte. 2014-III-26.
- Juan Souto Fariñas. 75 urte. 2014-III-26.

## jaiotakoak

- Amaia Bilbao Gonzalez. 2014-III-16.
- Paule Martin Vitores. 2014-III-18.

## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)  
**29an: 17.00, 19.45, 22.30**  
**30ean: 17.00, 20.00**  
**31n: 20.30**

### "Cuento de invierno"


Zuzendaria: Akiva Goldsman



(2 ARETOAN)  
**29an: 17.00, 19.45, 22.30**  
**30ean: 17.00, 20.00**  
**31n: 20.30**

### "Nebraska"

Zuzendaria: Alexander Payne



(ANTZOKIAN)  
**29an: 19.45, 22.30**  
**30ean: 20.00**  
**31n: 20.30**

### "8 apellidos vascos"

Zuzendaria: Emilio M.-Lazaro



(ANTZOKIAN)  
**29an: 17.00**  
**30ean: 17.00**

### "Las aventuras de Peabody"

Zuzendaria: Rob Minkoff



## BARIXAKUA 28

### GAZTELEKUA

**16.30.** Sukaldaritza. Indianokua gaztelekuan.

### KONTZERTUA

**00.00.** Igor Arzuaga "Mara"-ren kontzertua. Beleko tabernan.

## ZAPATUA 29

### MUGARRIAK

**08.00.** Eibar Mugarri Mugari ibilbideari ekiteko taldea batzea. Deporretik.

### ARMERIAKO IKASLE OHIAK

**10.00.** Urteko batzarra.  
**12.15.** Talde-argazkia. Armeria Eskolan.

### HITZALDIA

**11.00.** "Fibromialgia, minbizia eta osasuna". Gabriel Ruiz Garcia sendagilea. Sarrera librea. Coliseoan.

### ASANBLADA

**11.00.** Asanblada orokorra. Gaztetxean.

### BERREIBAR KULTURALA

**12.00.** "La mirada de los niños 2" umeendako pintura tailerra (euro bat). Topalekuan.

### BERTSO BAZKARIA

**14.30.** Maialen Lujanbio eta Unai Agirrerekin. Arrate Kultur Elkartearen.

### KONTZERTUA

**17.30.** Eibarko Koro Gaztea. El Corte Inglesean (aretoan).

### ZAPATUKO IPUINA

**18.00.** "Atrebentziaako ipuinak". Nerea Ariznabarreta. Umeen liburutegian.

### KONTZERTUA

**23.00.** Animal Blues Band taldea. Ez Dok tabernan.

### FUNK OFF!

**23.55.** "Get down to the cosmic room": Xane, Boocos Dust DJ Aka. Koskor tabernan.

## DOMEKA 30

### KONTZERTUA

**12.30.** Cielito Musika Banda. Coliseoan.

### GAZTELEKUA

**17.00.** Play/Wii. Indianokua gaztelekuan.

## ASTELEHENA 31

### NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

**11.00.** Toka, petanka eta igel-toka txapelketa. Ipuruako bolatokian.

**17.00.** Mahai-jokoan txapelketa: tute, mus, briska, xake eta domino. Beheko Tokian.

## MARTITZENA 1

### IKASTEN

**10.00.** "Las siete maravillas de la antigüedad". M<sup>a</sup> Jose Noain. Armeria Eskolan.

### NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

**11.00.** Ibilbide bio-osasungarria Amañan, begirale batek lagunduta.

**16.00.** Txokolate-jana eta kantuak. San Andres zaharren egoitzan.

**19.00.** Segurtasunari buruzko hitzaldia, Ertzantzaren eskutik. Untzagako jubilatutuetxean.

### HITZALDIA

**15.30.** "Transferencia de calor en alimentos". Alvaro Campos Celador EHU-ko irakaslea. Eibarko Injeniaritza Eskolan.

### IKASTEN

**17.00 eta 18.30.** Joskintza tailerra. Portalean.

### BILERA

**18.30.** Autobus zerbitzua hobetzeko herritarrek egindako proposamenak ezagutzera eman eta iritzia jasotzeko. Foru Aldundia. Udaletxeko pleno aretoan.

### HITZALDIA

**19.00.** "Elikadura: bertakoa eta freskoa". Errigora eta Aza Ta Porrúa elkarteak. Portalean.

## EGUAZTENA 2

### IKASTEN

**11.00.** Kafe-tertulia: "Edariak eta osasuna". Untzaga jubilatutuetxean.

### HITZALDIA

**19.00.** "Energia berriztagarriak". Goiener energia kooperatibako Santiago Ochoa de Eribe. Portalean.

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Entsegu. San Andres elizan.

### NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

**20.30.** Bertso-afaria. Juan Mari Narbaiza eta German Meabe bertsolariak. Gai-jartzailea: Rafael Zubizarreta. Izen-ematea: jubilatutuetxeetan (12 euro). Untzagako jubilatutuetxean.

## EGUENA 3

### IKASTEN

**10.00.** "Generacion, distribucion y utilizacion del gas natural" (2. zatia). Pedro del Olmo. Armeria Eskolan.

### NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

**18.00.** Ipuruako jubilatutuetxeetik abiatuta, kalejira kaleetan kantuz jubilatutuetxeetan.

**18.30.** Urkikoan.

**19.00.** Untzagakoan.

**19.30.** Beheko Tokian.

### ODOLA ATERATZEA

**18.30.** Odol-emaileentzat saioa. Anbulategian.

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Entsegu. San Andres elizan.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Atsenederako sasoa heldu da. Azken aldian oso lanpetuta ibili zara, gauzak alde batera lagata. Aprobetxatu denbora!

### TAURUS

Ezin izango duzu penisatu zenuen plan hori bete. Lagaizu Aste Santurako! Inprobisatu, horrekin emozioa biziko duzu-eta!

### GEMINI

Azken egunetako tristuratik alde egin eta alboan duzun pertsonarekin pozik egongo zara. Zugatit egiten duena baloratu!

### CANCER

Aspaldian entzun ez dituzun abestiak entzun eta iraganera egingo duzu jauzia. Lantzean behin atzera bota begirada.

### LEO

Irrikitian egongo zara Aste Santuko oporrak noiz helduko; baina erdi-gaixorik, nahiko txarto ibiliko zara. Zaindu zaitez.

### VIRGO

Sudurreko grano txiki horrek asteburua izorratuko ditu. Baina ez zaitu itsusiago egiten, zuk horrela uste arren. Politori!

### LIBRA

Imajina herriko kaleetatik erdi biluzik zoazela, gurutze batekin sorbaldan eta lurretik arrastaka. Plan hobetik bai?

### SCORPIUS

Arazoak izango dituzu lagunekin, berba eginez konponduko dituzunak. Seinale ona: elkarrenganako konfidantza.

### SAGITTARIUS

Hilabete geratzen zaizu oporraldi eder baterako. Egunerokotasunetik alde egin eta aire freskoa arnasteko aprobetxatu.

### CAPRICORNIUS

Berba politik entzungo dituzu beste baten ahoan eta biziki poztuko zara. Ondo dago noizbehinka autoestima goian jartzea.

### AQUARIUS

Lagun berezi bati agur esan beharko badiozu ere, ez da betiko izango. Gero arte esatea ez da hain mingarria.

### PISCIS

Bide erratuetatik bazabiltza ez zara helmuga onera iritsiko. Alboan daukazu bide zuzena eta ez zara konturatzan!



Viernes	Sábado	Domingo	Lunes	Martes

## erakusketak

### ✓ Martxoaren 31ra arte

“GRAFIKAK” emakumeen erakusketa kolektiboa. *Portalean.*

**PEDRO ARRIOLAREN** “Japon” argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan.*

**ANTONIO VILLANUEVAREN** argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

**ANDRES LOZANOREN** “Aste Santua” argazki erakusketa. *Depor tabernan.*

**CARLOS TRUKOREN** margo erakusketa. *Deika tabernan (San Juan, 1).*

**MARIA ROMEROREN** erakusketa. *Beleko tabernan (Bista Eder, 2).*

### ✓ Apirilaren 11ra arte

**ARMERIA ESKOLAKO IKASLE OHIEN** argazki erakusketa. *Untzagako jubilatutxean.*

### ✓ Apirilaren 13ra arte

“**ESPazio BERBERAREN IRAKURKETA EZBERDINAK**” erakusketa, Berreibar Ekimen Kulturala proiektuaren eskutik. *Topalekuan.*

### ✓ Apirilaren erdialdera arte

**VANESSA ATECA-REN** margo erakusketa. *Casanella Studion (Juan Gisasola, 16)*

## lehiaketak

✓ **Made in Eibar:** Eibarko industriarekin lotutako euskerazko dokumental lehiaketa. **Sariak:** Atal ezberdinetan 3.000 euro bekatan. Lehiaketan parte hartzeko ikastaroak: Apirilaren 5, 12, 14, 15 eta 16an (Itzamnak emanda, euskaraz). **Izen-ematea:** Martxoaren 17tik 28ra.

✓ **XVII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa:** Gaia: Aratosteak. **Lanak aurkeztea:** Arrate Kultur Elkartean, apirilaren 1erako. **Sariak:** 160 euro, 100 euro eta 60 euro.

✓ **Berreibar Paisajintza Lehiaketa:** **Lanak aurkeztea:** Apirilaren 22ra arte.

	2	7		3	
3				9	
	9	4		1	2
		3			7
	7	4		1	8
3		2			
5	1	9		2	
3					5
	4		2	8	

## SUDOKUA

6	4	2	8	5	9	7	3	1
1	9	8	3	7	2	6	5	4
5	3	7	4	6	1	9	2	8
8	7	5	1	9	3	2	4	6
2	6	9	7	4	5	8	1	3
4	1	3	6	2	8	5	9	7
9	8	4	2	3	6	1	7	5
3	2	6	5	1	7	4	8	9
7	5	1	9	8	4	3	6	2

AURREKOEN EMAITZA

## farmaziak

### ✓ barixakua 28

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

### ✓ zapatua 29

EGUNEZ **Las Heras** (Calbeton, 19)

### ✓ domeka 30

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

### ✓ astelehena 31

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

### ✓ martitzena 1

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

### ✓ eguaztena 2

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

### ✓ eguena 3

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)

### ✓ barixakua 4

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

## 2014 urte osorako

### GAUEZ

**Azkue** (T. Etxebarria, 4)

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.50etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.50etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.50, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.50etatik 13.50etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.50etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Etxebizitza salgai erdialdean. 3 logela, egongela, sukalde, 2 komun eta trasteroa. Ilogailua. 130 m<sup>2</sup> erabilgarri edo 156 m<sup>2</sup> eraikiak. Argitsua. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Tel. 626-203838 eta 699-495249.  
– Babes ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 75 m<sup>2</sup>. Trasteroa eta garajearekin. Tel. 655-706983 eta 647-720800.

### 1.2. Errentan

– Apartamentua alokagai Aste Santurako Landetako Vieux Boucaun, Hosesgor inguruan. Tel. 943-701635.  
– Pisua behar dut alokairuan Eibarren. Merke. Tel. 632-192408.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Garaje itxia salgai Asua-Errekan. 27 m<sup>2</sup>. Aukera. Tel. 688-814562.

### 3.2. Errentan

– Hiru lokal (35, 40 eta 65 m<sup>2</sup>koak) alokagai -banaka edo batera- Matxaria kalean, tren estazioetik 150 metro-ra. Guztiz berriak. Tel. 672-410804.  
– Lokala alokagai Sostoarren inguruan. Prezio onean. Tel. 630-580010.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Erizain-laguntzailea eskaintzen da orduka nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Tel. 620-516728.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta asteburuetan. Tel. 655-677035.  
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 662-231301.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo elbarrituak zaintzeko gauz, etxean zein ospitalean. Tel. 602-561469.  
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 682-688813.  
– Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 664-584022.  
– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 617-800314.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 692-332871.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta pegorak garbitzeko. Esperientzia. Tel. 675-358119.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 610-658914.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-035709.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, kamarera jarduteko... Tel. 627-284033.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 697-702158.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka eta asteburuetan. Erreferentziak. Tel. 632-742431.

– Emakumea eskaintzen da Eibarren nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 674-342769.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduz gabe. Esperientzia. Tel. 631-385949.

– Emakumea eskaintzen da arratsalde eta gauz nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 628-223441.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna eta asteburuetan. Tel. 633-244397.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 697-697372.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-230789.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 602-186462.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean edo erresidentzian eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-203287.

– Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Orduka. Asteburuetan ere bai. Tel. 631-466742.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Erreferentziak. Tel. 600-332954 eta 943-700229.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-488692.

– Mutila eskaintzen da soldatzaile jarduteko. Hainbat ikastaro egindakoa eta nazioarteko esperientziarekin. Tel. 659-176042.

– Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-901667 eta 943-530908.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 636-976515.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 679-910991.

– Mutila eskaintzen da igeltsero eta pintore jarduteko. Esperientzia. Tel. 695-858174.

– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko... Tel. 602-023214.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 638-205490.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 662-012834.

– Geriatrian ikasketak egindako mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko edozein ordutan. Esperientzia. Tel. 655-132769 eta 631-379089.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-855268.

– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 638-855268.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.

– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 659-813248.

– Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 642-609678.

– Neska eskaintzen da arratsalde eta gauz nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-841158.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.

– Neska euskalduna eskaintzen da arratsalde eta asteburuetan umeak zaintzeko eta kamarera moduan. Tel. 669-344278.

## 4.2. Langile bila

– Langileak behar dira harategi baterako. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a: inakigr@yahoo.es

– Emakume euskalduna behar da goizez umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 630-434581.

– Kamarero/a behar da Eibarren. Bidali curriculum-a: bar.ofertaempleo@gmail.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Igarle izateko eta tarot ikastaroak ematen ditut. Tel. 685-739355.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Ohe artikulatua eta garabia salgai. Gutxi erabilitakoak. Koltxo gainekoa-rekin. Tel. 655-110362.

– Pianoa salgai. Cherny markakoa. Tel. 669-179522.

– Bi ohe artikulatu salgai, bakoitza bere mandoarekin. Oso egoera onean. 0'90x1'90. Egurrezko oheburuko dotoreak opari. 800 euro biak. Tel. 669-179522. Ainar.

– Baby Monitor Philips Avent jaioberriei entzuteko salgai. Tel. 626-144098.

– Umeentzako motxila salgai. Deuter markakoa. Tel. 626-144098.

– Baxu elektrikoa eta amplifikadorea (10 watt) salgai. Hasiberriandako. 150 euro. Tel. 660-155631.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Ninfa txori bat galdu da Amaña inguruan. Sarituko da. Tel. 943-202398.

– Astelehen eguerdian eguzkirako baturaerako graduatuak galdu nituen Urkizun. Sarituko da. Tel. 639-503170.

### 6.4. Bestelakoak

– Mutiko batentzat 18-20 neurriko bizikleta hartuko nuke. Tel. 646-293311.



# alternatEIBAR

Kapitalismoaren aurrean, aldaketa praktiko eta errealak

Apirilak 1



Elikadura:  
bertakoa eta freskoa.  
Errigora eta Aza ta Porrúa

Apirilak 2



Energia berriztagarriak.  
Goienerr

Apirilak 8



Hondakinen berrerabilpena.  
EMAUS fundazioa

Apirilak 9



Banka Etikoa.  
FIARE

*Hitzaldi guztiak 19:00etan Portaleko areto nagusian.*

**Kontsumitzaile garen heinean, gure esku dago aldaketa.**

**Antolatzailea: eibarko **

## euskararen transmisioa

2014ko  
**maiatzak 6**  
astearta

# MINTEGIA

EIBAR  
**Portalea**  
Kultur Etxea

Antolatzailea:



Euskara Elkartea

Babeslea:



Laguntzaileak:



## IZEN EMATEA

Martxoaren 31tik  
Apirilaren 30era


(25 €, bazkaria barne)

Informazioa: 943 20 09 18  
normalizazioa@etakitto.com





MONUMENTU ARTISTIKOA



# LASA JATETXEA



**250 LAGUNENDAKO  
JANGELA**



El Diario Vasco  
"Más gastronomía"  
Sariaren irabazlea  
2009an,  
BANKETEETAKO  
GIPUZKOAKO  
JATETXE  
ONENA moduan.



**Ozaeta Jauregia**  
**Tel. 943 76 10 55**  
**Faxa: 943 76 20 29**  
**[www.restaurantelasa.es](http://www.restaurantelasa.es)**  
**BERGARA**

*ERA GUZTIETAKO BANKETEAK  
ospatzeko toki bikain batean*